


Industri prezioak %0,5 jaitsi ziren Euskal AEn 2019ko abuztuan aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearen aldean (2019ko abuztua 2018koaren aldean) %0,3 igo ziren

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko industri prezioak %0,5 jaitsi ziren 2019ko abuztuan aurreko hilaren aldean. Datu horiek kontuan, abuztuko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industriako prezioek izandako aldakuntza) %0,3 da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Analisi zehatzagoa eginda, hauek dira 2019ko abuztuan prezio-hazkunderik handienak izan dituzten sektoreak aurreko hilaren aldean: *Ehungintza, larrugintza eta zapatagintza*, %1,7ko igoerarekin; *Erauzketa-industriak*, %1,3rekin; eta *Altzariak eta beste manufaktura-industriak*, %0,5ekin. Jaitsierarik handienak, aldiz, hauek: *Kokeriak eta petrolioaren finntzea*, %2,5ekin; eta *Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire girotua*, %1,6rekin.

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraikiz, aurreko hilaren aldean, *Ekipoko ondasunek* %0,1 egin dute gora eta *Kontsumoko ondasunek*, oro har, %0,1, zeren *Kontsumoko ondasun ez-iraunkorrek* %0,1 egin baitute gora eta *Iraunkorrek* ez baitute aldakuntzarik izan, %0,0. *Bitarteko ondasunetan* prezioak berdin mantendu dira, %0,0. *Energiarenak*, aldiz, %2,2 murriztu dira.

Urte arteko aldian, 2019ko abuztua 2018koaren aldean, prezio-hazkunderik handienak gertatu dira *Garraio-materialean* eta *Material eta ekipa elektrikoan*, bietan %2,5eko hazkundearekin, eta *Energia elektrikoa, gasa, lurrina eta aire girotua* zein *Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak* izenekoetan, %2,0ko hazkundearekin biotan. Alderantzizko norabidean, jaitsierarik handienak hauetan izan dira: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea*, %4,2rekin; *Industria kimikoa*, %1,4rekin; eta *Ehungintza, larrugintza eta zapatagintza*, %1,3rekin.

Ondasun-talde handietako prezioen aldakuntza positiboa izan da urte artean *Ekipoko ondasunetan*, zeinetan %1,8 hazi diren, *Bitarteko ondasunetan*, %0,3ko igoerarekin, eta baita ere *Kontsumoko ondasunetan*, %0,4ko igoerarekin; horien barnean, %2,2 hazi dira *Kontsumo iraunkorrekoak* eta %0,1 *Ez-iraunkorrekoak*. *Energia* %0,9 gutxitu da.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2019ko Abuztua

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %		
		2019abu / 2019uzt	2019abu / 2018abu	2019abu / 2018abe
INDIZE OROKORRA	103,8	-0,5	0,3	1,5
Sektore-banaketa				
Erauzketa industriak	106,0	1,3	0,3	3,7
Manufaktura-industria	104,7	-0,3	0,0	1,3
Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	98,3	-1,6	2,0	2,3
Ura	107,0	0,3	1,0	2,4
Industria-sektore handien arabera				
Kontsumo-ondasunak	103,6	0,1	0,4	0,3
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	103,4	0,0	2,2	1,9
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	103,7	0,1	0,1	0,0
Ekipa-ondasunak	107,4	0,1	1,8	1,7
Bitarteko ondasunak	102,7	0,0	0,3	0,1
Energia	104,8	-2,2	-0,9	5,5

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62